

# Aiurri

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Igande honetan  
arratsaldeko  
16:00tan eta 18:30etan,  
Saroben

2016ko otsailaren 19a, 471 zenbakia XI. urtea Andoainen eta Urnietan doan banatzen da

IGANDEAN, SAROBEN

## Euskal Herri osoko musikariak datoz Andoaingo piano jaialdira



lazko edizioko saioa Basteroko auditorioan. Dozenaka piano-jotzaile Ainhoa Aiertza aurkezlearen esanak entzuten, eta alboan gaztetxoen lepoetan amaitu zuten domina ugari.

Andoain egun batez  
805 piano-jotzailerentzat  
kultur hiriburu  
bilakatuko da.

Hamaikagarren ediziora iritsi  
da **Andoaingo piano jaialdia**,  
**Seiasle** elkarteak abian jarri  
eta hasieratik indar handia  
hartu zuen ekitaldia. Elkar-  
tearentzat eta Andoaingo herria-  
rentzat ere, kanpoko bisitariak  
jasotzen dituen hitzordu bakan  
horietakoa da. Aurkezpen eki-

taldian, Andoaingo Udalak ba-  
bes osoa eskaini zien antola-  
tzaileei. Musika eskoletako ira-  
kasleak asteburu batez jaialdi  
erraldi baten antolatzaile bi-  
lakatzen dira. Asteburuko zo-  
ramenarekin nahikoa ez eta  
aurtengoan piano jaialdiaren  
atarikoak astearen hasieratik  
abiatu dira. Astelehenean **Aita  
Donostia** sortzaile handia  
omendu zuten, eta asteartean  
Andoaingo **Lorrazak** taldeari  
lehen diskoa aurkezteko auke-  
ra eman zioten.

**HITZORDUAK IGANDERA BITARTE**  
Ostegun honetan, arratsaldeko  
19:00etan hasita, **Txitxu Castro**  
eta **Myriam Ulangaren** ikasleak  
erakusketa gelan zuzenean ari-  
tuko dira.

Ostiralean, arratsaldeko  
18:30etan hasita **“Teklak dan-  
tzan”** kontzertu didaktikoaz  
gozatzeko aukera izango da.

Eta larunbatean eta igande-  
an iritsiko da hitzordu nagus-  
ia, zortzirehun piano-jotzaile  
Basteroko taula gainetik igaro-  
tzen direnean.

**GEHIGARRI BEREZIA**

**11.**  
ANDOAINGO  
PIANO JAIALDIA  
2016ko otsailak 20 / 21

**ERDIKO ORRIALDEETAN**  
Piano jaialdiari buruzko informa-  
zioa, Andoaingo eta Urnietako par-  
taideen ordutegia, beste musika  
eskolatak kideen adierazpenak,...



### Urnietarrak piano jaialdian

Urnietako 29 ikasle arituko  
dira aurtengo edizioan, 7-15  
urte bitartekoak. Maribi  
Arruti irakaslea jaialdiaren  
jarraitzaile sutsua da: “Ikas-  
leak pozarren joaten dira  
piano jaialdira, ilusio eta  
motibazio handikoa baita”.

[GEHIGARRI BEREZIA]

### Bertso saioa

Hurria Sahara elkarteak an-  
tolatuta, bertso saioa izango  
da Basteron puntako bertso-  
larien parte hartzearekin.  
Besteak beste, Maialen Lu-  
janbio, Aitor Mendiluze, Be-  
ñat Gaztelumendi edota  
Alaia Martin. Sarrerak dago-  
eneko salgai Delgadon, Er-  
naitzan, Stop eta Urratsen.

[AGENDA, 12. ORRIALDEA]

### Postontzia

Unrietako ezker abertzaleak,  
Andoaingo Udalak, Ipar Hai-  
zea plataformak eta Stop Ka-  
leratzeak Andoain elkarteak  
gutun bana igorri dute.

[INFOAIURRI, 10. ORRIALDEA]

**ALTZARIAREN  
AZOKA URNIETAN.**  
**Deskontuak %80-a arte**

**OTSAILAK  
20-28**

Ordutegia: 9:30-13:00/ 16:00-19:30  
LARUNBATETAN JARRAIAN  
9:30etatik 19:30etara  
ETA IGANDE GOIZETAN irekita.

IGARATEGI INDUSTRIALDEA 70  
20130 URNIETA.

[www.mueblesiturbe.com](http://www.mueblesiturbe.com)

**Nei**  
Muebles Kit Altzariak

**iturbe**  
SUKALDEA & ETXEA {1964az geroztik}



2016ko aurrekontua jendaurrean aurkeztu du Urnietako Udalak

## Aurrekontuen aurkezpena

Udalak aurrekontua aurkeztu zuen jendaurrean joan zen astean. Besteak beste, bederatzi milioi euro ondorengo gastuetara bideratuko dituzte: 2.872.400 euro pertsonalaren gastuetan, tartean, udaletxeko langileen soldatak; 4.756.030 euro ondasun arrunt eta udaletxeak eskaintzen dituen zerbitzuetan; 987.100 herrian egindako inbertsio errealetan.

Udalaren hiru arlo nagusiak erreparatuta, %41 Herriargoa sailera bideratuko da, %37 Lurraldeara eta gainontzeko %22 Antolaketa sailera.

### JOKABIDE GARDENA

Gobernu taldeak jokabide berria iragarri du. Dinamismo horren berri Udalaren webgunean emango dutela azaldu zuen Mikel Pagola alkateak, Udalaren asmoa guztiz gardena izatea de-



Maribel Vaquerok aurrekontuen inguruko datu zehatzak eskaini zituen.

lako: "Hilabetero egiten diren ohiko batzordeetan aldaketen berri emango da. Batzorde horretan jakinarazi eta gero, hurrengo pausoa webgunearen bidez herritar guztiei jakinaraztea izango da".

Inbertsio estrategikoen parte hartze prozesua ere gogoan har-

tu zuen alkateak, herrian egiten diren inbertsioek eragin handia izango dutelako datorren urteetako aurrekontuetan. "Aparteko gastuak egongo dira inbertsioei aurre egiteko. Beraz, parte hartze prozesu horretan, inbertsioek eragingo dituzten mantenu gastuez ere hitz egingo dugu".

## Gaztelekuan inauterietan egindakoaren balorazioa



Mozorro lehiaketan, zinemara joateko bonoak oparitu zituzten.

Urnietako Gaztelekuan, ikasleen jai egunak kontuan harturik, lehen aldiz inauterietako astelehen eta asteartean jarduerak antolatu zituzten. Saiakera horren balorazioa egin dute Gaztelekuko arduradunek, datorren urteko ekitaldiak antolatzeko garaian baliagarria izango zaiena.

Otsailaren 5ean, ostiralarekin, "Uno para ganar" telebistako saioan oinarrituriko jolasa antolatu zuten. Jende ugari bertaratu zen egun horretan eta hamar lagun animatu ziren lehiaketan parte hartzera. Une atseginak igaro zituzten, "jolasa ondoren ere errepikatu izan dugu, Gaztelekua lasaiago dagoenean".

Otsailaren 8an, astelehenaekin mozzorro txapelketa antolatu zuten. "Lehen aldia da horrelako proposamena egiten gurela eta ez gene-

*"Asmoa erabiltzaile gazteenei, jai zutela kontuan hartuz, herrian bertan ekintza bereziak eskaintzea zen"*

kien oso ondo gazteek nola erantzun zuten. Gure asmoa erabiltzaile gazteenei, jai zutela kontuan hartuz, herrian bertan ekintza berezi bat eskaintzea zen. Zoritxarrez oso nerabe gutxi gerturatu zen mozzorrotuta. Hala ere, mozzorrotu ziren gutxi horiei saria ematea erabaki genuen. Sarobeko zinemara joateko hamar saioko bonoa oparitu genien, ilusio handiz hartu zutena".

Otsailaren 9ko Singstar delako lehiaketa bertan behera utzi zuten, gora-behera ezberdinak tarteko.



Mozorro lehiaketako sari banaketa ekitaldia.

## Txotxongilo tailerra



Ikasleak eta adinekoak elkarrekin.

Salesiarren ikastetxeko Lanbide Heziketako bigarren mailako ikasleak, Topic txotxongilo museoarekin elkarlanean, Hernaniko eguneko zentroan tailer bat eskaini dute. Lehenengo saioan ikuskizuna eskaini zieten bertako erabiltzaileei. Bigarren saioan, berriz, ikasleek erabiltzaileei txotxongiloak egiteko likastarotxo eman zieten.

# SAHARAREN ALDEKO BERTSO SAIOA

Alaia Martin

Aitor Mendiluze

Beñat Gaztelumendi

Maialen Lujanbio

Oihana Iguaran

Unai Muñoa

Sarrerak salgai: Delgado, Emaizta, Stop, Urrats.

Gaijartzailea: Jon Beloki

ANDOAINGO BASTERO KULTURGUNEAN

2016/02/28

12:00etan

Andoaingo POTTO bertso eskola

laguntzaileak

Aiarri

MAPFRE

AXA



## Eskualdean langabetuak kontratatzeko deialdia

Lanbiderekin elkarlanean, Andoain, Urnieta eta eskualdeko Udalak langabetuak kontratatzeko egitasmoak burutzen ari dira.

Martxoaren 1a bitarte luzatuko da deialdi berria. Kontratuaren iraupenak gutxienez hiru hilabetekoa izan behar du, lanaldi osora edota erdira. Dirulaguntza lanaldi osorako bada 3.000 eurokoa izango da, aldiz, lanaldi erdira izanik 1.500 eu-

rokoa. Informazioa eskuragarri dago udaletxe bakoitzean. Kontratazioak abian jartzeko epea martxoaren 1ean amaitzen da eta hilabete geroago, hau da, martxoaren 31 bitarte enpresek dirulaguntza eskaera egiteko aukera izango dute.

Eskaerak Andoaingo Udalako Enplegu lansailean aurkeztu behar dira Urigain etxean (La Salle etorbidea, 6. Tel.: 943 304 221).

## Aurreikusitako arrakasta

Aurreikusten zen bezala, "El florido pensil, neskak" aurreko igandeko aurre estreinaldian Sarobe goraino bete zen. Aldez aurretik salmenta oso handia izan zen, eta azken dozena eta erdi sarrerak

ekitaldia hasi baino lehen saldu ziren. Urnietatik abiatu da antzezlan, Euskal Herri osoko eszenatokietan ikusi ahal izango dena. Urnietan prestatu eta gero, bertan eskaini zuten lehen aldiz.

## Foru diputatuaren bisita



Udal ordezkariak Denis Itxaso Foru Diputatuarekin batera.

Aurreko asteazkenean, otsailak 10, Denis Itxaso Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol diputatua Urnietan izan zen, Udalak egindako bisitaldiari erantzunez. Urnietako Udalak kiroldegia berritzeko asmoa duela eta, agintariari xehetasunak eskaini zizkieten, eta ahal den neurrian proiektua aurrera eramateko babesa eskatu.

Bisitaldia Sarobera hurbil-

tzeko ere baliatu zuten. Arte eszenikoen gunea Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin eraiki zenetik, hogei urteotan Euskadiko arte eszenikoen erreferentziazko gune bilakatu da. Bertan ikuskizun ugari prestatzen da.

Aurrerantzean ere hala izan dadin, Udalak Sarobera bideratuko den dirulaguntza definitu nahi du.

## Baratze ekologikoa

Beste herri askotan bezalaxe, Urnietako Udalak baratze ekologikoa lantzeko aukera eskainiko die herritarrei. Zehazki, berrogei metro karrautuko eremuak izango dira bertako produktuak landatu ahal izateko. Kontsumo propiorako erabiliko dira eta debekatuta egongo da bertatik ateratako fruitu edo produktuen salmenta. Baratze ekologiko bat edukitzeko in-

teresa dutenek dagoeneko izena emateko aukera dute. Interesatuak zenbait baldintza bete beharko dituzte: Urnietan bizi izana gutxienez urtebetez, beste baratze ekologiko bat duen familia bateko kide ez izatea, nekazaritza edo landa eremuko beste lurrik ez izatea eta baratze ekologiko baten erabiltzaile moduan inoiz aurretik zigorrik jaso ez izana.

## IZOTZA ETA ZERO AZPIKO TENPERATURA ASTEAZKEN GOIZEAN

Adarrara igoera, elurretan



Urnietan gradu bat zero azpitik neurtu zuten asteazken goizean Jonathan Lopez edota Andoni Urbistondo eguraldi adituek. Azken honek Adarratik bideoa igorri zuen, Aiurri.eus gunean ikusgai da-

goena. Eskuko telefonotik ikus daiteke, QR kodigoa eskaneatuta.



## ALTZARIEN AZOKA URNIETAN, MUEBLES ITURBEREN ERAIKINEAN



Igarategi industrigunean dagoen Iturbe altzarietan otsailen merkatuko prezioak hautsi eta beherapen handi samarrak jartzeko ohitura dute. Larunbatean hasi eta otsailaren 28ra bitarte, beraz, eskaintza bereziaz baliatzeko aukera izango da. Ordutegia:

- 09:30-13:00 / 16:00-19:30.
- Larunbata: 09:30-19:30.
- Igande goizez, zabalik.

**PREST**

**MONDRAGON**  
UNIBERTSITATEA

**Nerea Laburu**  
Gastronomia eta sukaldaritza arteak, 3.maila

**GRADUKO ATE IREKIAK**

**GOI ESKOLA POLITEKNIKOAK**

**ORONA IDEO • MARTXOAK 5**  
LARUNBATA, 10:30 / Aula Magna

**GOIERRI • MARTXOAK 12**  
LARUNBATA, 10:30 / Aula Magna

**ENPRESAGINTZA FAKULTATEA**

**BIDASOA • OTSAILAK 27**  
LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

**OÑATI • MARTXOAK 5**  
LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

**BILBAO • MARTXOAK 12**  
LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

**HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA**

**ESKORITZA • MARTXOAK 12**  
LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

**ARETXABALETA • MARTXOAK 12**  
LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

**GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA**  
Basque Culinary Center

**DONOSTIA • MARTXOAK 19**  
LARUNBATA, 10:30 / Aula Magna

**ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI!**

**902 110 436**

[www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)

#erronkarakoprest



XABIER CABEZON DONOSTIARRA LEITZARAN.NET WEBGUNEAREN KUDEATZAILEA DA

# Leitzaran bailara webgunean

Xabier Cabezón donostiarra Leitzaran.net web orriaren egile eta kudeatzailea da. Gaur gaurkoz Leitzaran bailararen inguruan interneten eskura daitekeen informaziorik aberatsena eskaintzen du,

eta ehun bat bisita jasotzen ditu egunero. Ederki asko ezagutzen ditu Leitzarango barrunbeak, ondare arkeologikoa batik bat. Erronka berria du esku artean: euskaraz ere idazten hastea. Gogotsu dago.

## Sarean Leitzaran hitza idatzi, eta zure web orria lehenengoetakoa da bistaratzen...

**Xabier Cabezón.** Halaxe da. Egia esan, lehia handia dago, “Leitzaran” marka erakunde zein negozio pribatu ugariarena baita, Andoain eta Leitza inguruetan batik bat: ikastetxe bat, Otietako bisitarien etxea, jatetxe bat, pintura eta grafika enpresa bana... Madrilen ere bada kale bat Leitzaran izena daukana! Bestalde, gai politikoekin nahastuta ere maiz ateratzen da prentsari Leitzaranen gaineko aipamena, Lemoiz eta biolentziarekin lotuta.

.Eus domeinua erregistratu nahi izan dut, baina ezin izan dut. Bere kudeatzaileek esan didatenez, lehentasuna entitate komertzialek daukate.

## Zure web orria euskaraz ere aurkezteko asmorik ez al daukazu?

**X.C.** Horixe da nire erronka pertsonala etorkizunerako. Bizitzan egokitu ohi diren zirkunstantziak direla medio, ezin izan naiz euskal hiztun bihurtu, baina nire ametsa da euskararekin trebatu eta neroni idazten has-tea noizbait. Oso motibatuta nago gai horrekin.

## Zer dela eta webgunea?

**X.C.** Ez naiz historialaria, ingeniari elektronikoa baizik, baina betidanik interesatu izan zait burdinolen mundua; bestalde, mendizalea ere banaiz. Luis Peña Santiago mendizale eta kazetariak Leitzarani buruz 1976an idatzi zituen bi prentsa artikuluek begiak ireki zizkidaten. Bi ideia barneratzen lagundu zidan Peñak: batetik, mendian asko ibili arren maiz inguruko elementu historikoei ez diegula behar bezala erreparatzen.

Bestetik, Leitzaran ezezaguna egiten zaigun xarmaz beteriko bailara dela gipuzkoar askorentzat. Horrela, Olloki burdinolara abiatu nintzen lehen-dabizi, eta ondoren, bailara osoko bazterrak, elementu arkitektonikoak... deskubritzeko konpromisoa hartu nuen.

## Honezkero, goitik behera zapalduko zenuen bailara...

**X.C.** Ahal dudanean asteburu-



Leitzaran bailararen ezagutza handia du, webgunean txertatzen ahalegintzen dena.

ro egiten dut txangoa. Unai semearekin hasi nintzen, baina hark ere bakarrik utzi ninduen unibertsitatean hasi zenean. Saiatzen naiz Mari Paz, emaztea, nirekin eramaten, baina ulertzen dut ni bezalako basapizti batekin ibiltzea erraza ez gertatzea. Lekuak eta elementuak deskubritzeko grina edukitzen dut, pista eta gurdibideak albo batera uztea eskatzen dit horrek, eta horrela, sasiz eta larrez jositako zoko ezkutu edo malkarretan amaitzen dut maiz.

## Nondik ateratzen duzu informazioa?

**X.C.** Liburu, aldizkari eta prentsa historikotik eta internetetik, batik bat.

## Leitzarango bazterrak zein egoeran daude zure iritziz, kontserbazioaren ikuspuntutik?

**X.C.** Nire inpresioa da bailara garbiagoa egon zela iraganean; 80ko hamarkadaren hasieran Diputazioak Zikuñaga papertegiari lur sailak erosi zizkionetik errealitatea aldatzen joan da. Zergatik hori? Garai batean

*“Makina bat borda ezagutu ditut teiltatuekin eta ganaduekin barruan; hondatuta daude gaur egun”*

zaldi eta gainerako ganadua aske ibiltzen zen larreetan, eta bazterrak txukun mantentzen zituzten. Geroztik, Leitzarango basoan soilik egurra ustiatu da, eta lur sailak hesitu egin dira. Basoak ez dira garbitzen, utzita eta zikin daude paraje asko.

## Penagarria da bailarko borda askoren egoera kaskarra...

**X.C.** Lur sailak hesitu eta ganadua ezkutatuta izanaren ondorioetako bat izan da. Artzainik ez dago zaintzeko eta bizitza emateko, teiltatua da erortzen den lehenbiziko osagaia. Makina bat borda ezagutu dut teiltatuekin eta ganaduekin barruan; hondatuta daude gaur egun. Esate baterako, Urlioko borda, Santolazeko zentraletik gora abiatuta, pinudi batean, Berastegiko lur eremuan kokatzen dena. Bailara osoan zegoen bordarik dotoreenetakoa zen: hiru logela, sukal-

dea, argindarra... 2009an atera nizkion argazkiak eta 2015eko abenduan berriro egin diot bisita. Irudiak alderatuta, argi ikusten da sei urteren buruan jasan duen galera. Tristura eta amorrua ematen du.

## Leitzaran turismo gune bilakatzen ari da azken urteetan. Nola baloratzten duzu erakunde publikoek daramaten politika?

**X.C.** Nafarroa eta Gipuzkoa, bi errealitateak bereizituko nituzke. Nafarroan nahiko ondo ari dira, nekazal giroko turismoa sustatuz, naturbidea zainduz, Huitziko tunela berreskuratuz... Gipuzkoan ere proiektuak jartzen dituzte abian, baina ekinaldi guztiari errentagarritasuna topatzea kostatzen ari zaie. Ez dut uste asmatu zutenik Bisitarien etxea Otietako behe alde horretan kokatuz. Otietara autoan urreratzen diren familiak edo txirrindulariak, zuzenean, bidean gora Nafarroa aldera abiatzen dira, egoitzari bisitarik egin gabe.

Zirkulazioa galerazi dute eta ez nago ziur zergatik izan den, ingurumenarekiko kontzientziagatik ala naturbidea izendatzeak dakarren baldintzagatik. Leitzaranez ez dauka masifikatzeko arriskurik, turismoaren ikuspegitik. Udan ez dut esaten mugatu behar ez denik, baina urtean zehar... Badago jendea betidanik bailaran jardun duena batean edo bestean, eta horiekin malguago jokatu behar-kolitzateke.

## Burdina taldearen kolaboratzaile zara...

**X.C.** Gure gizartean ordainezinako eginkizuna betetzen du auzolaneko elkarte horrek. Gehiago lagundu nahi nieke, baina denboraz justu samar ibiltzen naiz, zer esanik ez gerrietatik, atxurra edo pala astintzeko orduan! Tarteka, dokumentazio lanetan eta dakidana eskainiz parte hartzen dut. Badago pentsamendu korronte bat adierazten duena hobe dela ondare arkeologikoa ez argitan jartzea, bakean uztea dagoen bezala; ondatu omen liteke bestela. Kontrakoa egiten du Burdinak, berreskuratu eta jakinarazi. Nik

*“Naturaz, ondare historikoaz eta kirolaz gozatzeko museo zoragarri bat da Leitzaran, eta makina bat txango egin litezke, gutxieneko informazioa jaso eta gero”*

hortik joan behar dela argi daukat. Gure historia ez badugu ezagutzen eta baloratzten, jai dauka gure identitateak.

## Goiz batean egiteko, txangoren bat edo beste gomendatuko al zeniguke?

**X.C.** Naturaz, ondare historikoa eta kirolaz gozatzeko museo zoragarri bat da Leitzaran, eta makina bat txango egin litezke, gutxieneko informazioa jaso eta gero. Horra hiru txango, labur esanda: lehena, Plazaolako zentraletik abiatuta Altzadi mendian zehar ibilbide zirkularra.

Bigarrena, ur kanalean zehar joan etorria.

Eta hirugarrena, Ollokira joan etorria, Otieta abiapuntu izanda. Kuttunena da niretzat azken hori. Pare bat orduan bertara zaitezke, eta denetik topatuko duzu paraje xarmangarri horretan: historia askoko bi baserri, Burdinak zati bat berreskuratutako burdinolaren eta ur depositoaren arrastoak, garai batean errekar bi aldeak batzen zituen zubi polit-polita, tren geltokia, argindarreko zentrala...

Hiru txangoak web orrian aipatzen dira, azalpen eta argazkiez hornituta.

## Kosta egiten zaigu sinestea giza komunitate oso bat bizi izan zenik Leitzaranen iraganean...

**X.C.** Idealizatu egiten dugu Leitzaran maiz. Ahantzi egiten zaigu bizi baldintza latzetan bizi izan zela ofizio ezberdinetako jendea bertan: olagizonak, ikazkinak, mandazainak, artzainak, meatzariak, trenbidearen erakuntzako langileak... Askok bizia galdu eta guzti egin zuten bizimodua era duinean atera nahirik! Aitortzen dut neuk gutxi jorrratu izan dudala alderdi gizatiar hori. Iñaki Agirreren artikulua irakurtzea dut gogoko, bide horretatik saiatzen delako.





📍 Andoain, ehunka piano-jotzailereren bilgune

11.

ANDOAINGO  
PIANO JAIALDIA





# Piano doinuen asteburua iritsi da

## Andoaingo eta Urnietako partaideak




Andoaingo Udal Musika Eskola. Irakaslea: Myriam Ulanga					
Bakarlaria A	Irulegi , Libe	Larunbata, 20	Ekitaldi Aretoa	09:30	Von Pasterwitz
Bakarlaria A	Gorospe, Udane	Larunbata, 20	Ekitaldi Aretoa	09:30	Izen gabe
Bakarlaria A	Gorospe, Eneko	Larunbata, 20	Ekitaldi Aretoa	09:30	D. Blackwell
4 Eskutara A	Etxeberria, Arai	Larunbata, 20	Auditorioa	12:00	M. Mier
4 Eskutara A	Rodriguez, Ariane	Larunbata, 20	Auditorioa	12:00	M. Mier
4 Eskutara A	Azpiroz, June	Larunbata, 20	Auditorioa	12:00	J.S. Bastien
4 Eskutara A	Baron , Nere	Larunbata, 20	Auditorioa	12:00	J.S. Bastien
Bakarlaria B	Galindo, Naia	Larunbata, 20	Ekitaldi Aretoa	15:00	R. Vinciguerra
Bakarlaria B	Lopez, Beñat	Larunbata, 20	Ekitaldi Aretoa	16:15	J.F. Burgmüller
Bakarlaria B	Sarasola, Nahia	Igandea, 21	Auditorioa	09:30	M. Mier
Bakarlaria B	Ulanga, Oihane	Igandea, 21	Ekitaldi Aretoa	09:30	M. Mier
Bakarlaria B	Bekarte, Maddi	Igandea, 21	Ekitaldi Aretoa	10:30	F. Swinstead
6 Eskutara B	Aizpurua, Itxaro	Igandea, 21	Auditorioa	16:15	C. Gurlitt
6 Eskutara B	Elizondo, Maddi	Igandea, 21	Auditorioa	16:15	C. Gurlitt
6 Eskutara B	Murua, Aimar	Igandea, 21	Auditorioa	16:15	C. Gurlitt
6 Eskutara C	Aizpurua, Izaskun	Igandea, 21	Auditorioa	16:15	Ch. Norton
6 Eskutara C	Goikoetxea, Itxaso	Igandea, 21	Auditorioa	16:15	Ch. Norton
6 Eskutara C	Sueskun, Uxue	Igandea, 21	Auditorioa	16:15	Ch. Norton

Andoaingo Udal Musika Eskola. Irakaslea: Txitxu Castro					
Bakarlaria A	Jimenez, Ioritz	Larunbata, 20	Ekitaldi Aretoa	09:30	M. Mier
Bakarlaria A	Landa, Maddi	Larunbata, 20	Auditorioa	10:15	Izen gabea
Bakarlaria A	Oyarzabal, Udane	Larunbata, 20	Ekitaldi Aretoa	10:30	A. Goedicke
Bakarlaria A	Pastor, June	Larunbata, 20	Ekitaldi Aretoa	10:30	Izen gabea
Bakarlaria A	Murua, Naia	Larunbata, 20	Ekitaldi Aretoa	10:30	Ch. Norton
Bakarlaria A	Otegi, Albiñe	Larunbata, 20	Ekitaldi Aretoa	10:30	Waterman&Harewood
Bakarlaria A	Aritzimuño, Malen	Larunbata, 20	Ekitaldi Aretoa	13:30	Izen gabea
Bakarlaria B	Iturralde, Leire	Larunbata, 20	Auditorioa	16:15	M. Mier
Bakarlaria B	Miner, June	Larunbata, 20	Ekitaldi Aretoa	17:45	R. Vinciguerra
Bakarlaria B	Otxandorena, Jone	Larunbata, 20	Ekitaldi Aretoa	17:45	A.G. Abril
Bakarlaria B	Arnaiz, Haizea	Igandea, 21	Auditorioa	10:30	M. Mier
Bakarlaria B	Brosa, Eneko	Igandea, 21	Ekitaldi Aretoa	10:30	Ch. Norton
Bakarlaria C	Mujika, Iñaki	Igandea, 21	Ekitaldi Aretoa	15:00	J.F. Burgmüller
Bakarlaria C	Yusta, Mattin	Igandea, 21	Ekitaldi Aretoa	16:15	Ch. Norton

Lourdes Iriondo Musika Eskola Publikoa. Irakaslea: Ana Belen Garcia					
Bakarlaria A	Garciarena, Ane	Larunbata, 20	Auditorioa	09:30	J.S. Bastien
Bakarlaria A	Jauregi, Anitz	Larunbata, 20	Ekitaldi Aretoa	09:30	Waterman&Harewood
Bakarlaria A	Intza, Sara	Larunbata, 20	Ekitaldi Aretoa	09:30	Waterman&Harewood
Bakarlaria A	Medina, Eider	Larunbata, 20	Auditorioa	10:15	M. Mier
Bakarlaria A	Novo, Daniela	Larunbata, 20	Ekitaldi Aretoa	10:30	Waterman&Harewood
Bakarlaria A	Abla, Fatima	Larunbata, 20	Ekitaldi Aretoa	12:30	Bastien
Bakarlaria B	Morales, Eider	Larunbata, 20	Ekitaldi Aretoa	17:45	lordansky
Bakarlaria B	Taracena, Ane	Igandea, 21	Auditorioa	09:30	M. Mier
Bakarlaria B	Sologaistua, Claudia	Igandea, 21	Auditorioa	09:30	M. Mier
Bakarlaria B	Arretxe, Maitane	Igandea, 21	Auditorioa	10:30	M. Mier
Bakarlaria B	Etxeberria, Oihan	Igandea, 21	Ekitaldi Aretoa	11:30	J. Kember
Bakarlaria B	Etxeberria, Ekain	Igandea, 21	Ekitaldi Aretoa	11:30	J. Kember
Bakarlaria C	Muro, Maria	Igandea, 21	Ekitaldi Aretoa	15:00	A. Tanaka
Bakarlaria C	Sologaistua, Imanol	Igandea, 21	Ekitaldi Aretoa	16:15	S. Prokofieff
Bakarlaria C	Otaegi, Ane	Igandea, 21	Ekitaldi Aretoa	16:15	P. Wedgwood

Lourdes Iriondo Musika Eskola Publikoa. Irakaslea: Maribi Arruti					
Bakarlaria A	Garcia, Silvia	Larunbata, 20	Auditorioa	09:30	S. Duro
Bakarlaria A	Perez, Estitxu	Larunbata, 20	Ekitaldi Aretoa	10:30	W. Gillock
Bakarlaria A	Novo, Sara	Larunbata, 20	Ekitaldi Aretoa	10:30	Ch. Norton
4 Eskutara A	Pascual, Ander	Larunbata, 20	Auditorioa	11:15	Ch. Norton
4 Eskutara A	Rosco, Eneko	Larunbata, 20	Auditorioa	11:15	Ch. Norton
4 Eskutara B	Donavera, Ane	Larunbata, 20	Auditorioa	17:00	M. Mier
4 Eskutara B	Taracena, Eva	Larunbata, 20	Auditorioa	17:00	M. Mier
Bakarlaria B	Moreno, Iraia	Larunbata, 20	Ekitaldi Aretoa	17:45	M. Mier
Bakarlaria B	Pascual, Iñigo	Larunbata, 20	Ekitaldi Aretoa	17:45	Ch. Norton
Bakarlaria B	Pagola, Ane	Larunbata, 20	Ekitaldi Aretoa	17:45	M. Mier
Bakarlaria B	Rivero, Leire	Larunbata, 20	Ekitaldi Aretoa	19:00	J.B. Duvernoy
Bakarlaria B	Serrano, Garbiñe	Igandea, 21	Auditorioa	09:30	R. Vinciguerra
Bakarlaria A	Caballero, Joane	Igandea, 21	Ekitaldi Aretoa	12:30	S. Duro
Bakarlaria A	Elosegi, Leire	Igandea, 21	Ekitaldi Aretoa	13:30	Ch. Norton

## Euskal Herri mailako jaialdia



## Bakarka, binaka eta hirunaka



Andoaingo musika eskolako partaideak ere animatuko dira hirunaka parte hartzera.

Sinkronizazio maila handia eskatzen duen erronka berria ipini du antola-keta taldeak, hirunaka aritzea.

- Bakarlariak 617 partaide.
- Lau eskutara 152 partaide.
- Sei eskutara 36 partaide.

## Lorratzak taldearen disko berria



**Maddi Etxeberria** (biolina, kitarra), **Gara-zi Jauregi** (ahotsa), **Rebeca Gestoso** (ahotsa) eta **Malen Otxoa** (kitarra) dira Lorratzak musika taldeko kideak. Beren hitzetan "euskarari bultzadatzkoa

emateko eta barruak husteko" jaioa zen laukotea orain hiruzpalau urte, eta disko-a geroztik egin duten ibilbidearen emaitza da. Piano jaialdiaren atarikoan aurkeztu zuten, jendetzaren aurrean.





# 805 piano-jotzaile hartzeko prest



Musika eskolako irakasleek eta Udal ordezkariak bi musikarirekin batera aurkeztu zuten piano jaialdiaren edizio berria.

Hamaikagarrenera iritsi da Andoaingo piano jaialdia, herrian egiten den urteko ekitaldi garrantzitsuenetakoa. Dozenaka herrietatik ehunka piano-jotzaile iristen dira, asteburu batez Andoain kultur hiriburu bilakatuz. Aurtengoan zapi horiz beteko dira kaleak, piano-jotzaileak Basterotik irtetearen soinean daramatela ikusiko ditugunak.

“Ez genuen inolaz ere pentsatzen jaialdia honaino iritsiko zenik”, adierazi zuen **Myriam Ulanga** jaialdiaren antolatzaitzaileetakoak: “Musika eskola garenetik, irakaskuntza bideratzeko tarte zabala goa dugu. Eta horrela sortu zen piano jaialdia. Erreferentziarik ez zegoen, eta tresna bezala pianoa bakardadean lantzen da. Kalera ateratzea ezinezkoa da. Horregatik ikasturtearen martxaren baitan piano jaialdia antolatzea erabaki genuen. Ikasturte hasieran, musika eskola guztietara, piano jaialdiko errepertorioa bidaltzen dugu. Dagoeneko ikasturtearen plangintza egiteko erreferentzia handia da. Ikasleentzat, motibazioari dago-kionez, ikaragarria da”.

Musika jaialdia den arren, ospakizun modura bizi du Andoain herriak. Udala-ren izenean **Esti Mujikak** Seiaslek susta-tzen duen ekitaldiari babes osoa eskain-



**Eider Medina**  
**Lourdes Iriondo musika eskola**  
*"Familia guztiarekin joango naiz Andoainera. Gurasoak, anai-arrebak, aitona-amonak... abesti bizia joko dut eta espero dut gustokoa izatea"*

tzen dio: “805 musikariek parte hartuko dute, ez da datu makala. Seiaslek egiten duen lan izugarria aipatu behar da, elkar-te honek egiten duen lana ezinbestekoa da. Euren lana eskertu beharra dago”.

Udalak neurri bereziak hartuko ditu, bereziki, trafikoa eta aparkalekuei dago-kionez. Ahaztu gabe tamainako ekitaldiak ostalaritzan izaten duen eragin positiboa.



**Ane Pagola**  
**Lourdes Iriondo musika eskola**  
*"Iazko edizioan zilarrezko saria eskuratu nuen; ez dakit errepikatuko dudan, baina ondo pasatzera behintzat joango naiz"*



**Itxaro Aizpurua**  
**Andoaingo Musika Eskola**  
*"Bakarka eta lau eskutara parte hartu eta gero, aurtengoan sei eskutara joko dut Aimar Muruarekin eta Maddi Elizondorekin batera"*



**Maitane Arretxe**  
**Lourdes Iriondo musika eskola**  
*"Laugarren aldiz hartuko dut parte jaialdian; Martha Mier konposatzailearen abesti melodiko bat interpretatuko dut aurtengoan"*



**Albiñe Otegi**  
**Andoaingo Musika Eskola**  
*"Bakarka arituko naiz, egun hauetan etxean eta musika eskolan nabil prestaketa lane-tan. Aurtengoa lehenengo aldia izango da niretzat"*



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA





# Piano jaialdiarekin maiteminduta

Gipuzkoako zazpirehun piano-jotzaile-tik gora hurbilduko da Andoainera, asteburu honetan. Partaide gehienek artean jaialdiak ikusmin handia sortzen du. Eta gehienak pozarren itzultzen dira euren herrietara. Urnietako, Donostiako eta Eibarko lekukotzak, jarraian:

## URNIETA

### Lourdes Iriondo eskola

**Maribi Arruti** musika irakasleak ondo baino hobeto ezagutzen du piano jaialdia, hamaika edizioetan parte hartu baitu. Bera eta **Ana Belen Garcia** andoaindarraren 29 ikasle arituko dira aurtengo edizioan, guztiak 7 eta 15 urte bitarteko urnietarrak. Maribi jaialdiaren jarraitzaile sutsua da: “Ikasleak pozarren joaten dira piano jaialdira, ilusio eta motibazio handikoa baita. Urnietan Eguberrietan eta ikasturte amaieran jendaurreko emanaldiak eskaintzen badituzte ere, Andoaingoa berezia da. Eta bereziki garrantzia ematen diete domina eskuratzeari. Erronka handia da ikasleentzat.

Jaialdia oso ondo dago, oso positiboa da eta gure ikuspegitik behar-beharrezkoa da. Azken asteetan jaialdia prestatzeko lan erantsia suposatzen badigu ere, ikasturtearen martxan ezinbesteko bilakatu da guretzat. Antolakuntza perfektua da, hamarrekoa ipiniko nieke”.

## DONOSTIA

### Musikabi

San Ignacio ikastetxeko 22 piano-jotzaile Andoainera ibiliko dira asteburuan. Piano irakaslearentzat ezinbesteko hitzordua da: “Bazterrean utzi ezin den jaialdia da irakasle eta ikasleentzat. Pianoaren baitan duten garapena ikusteko oso polita da, gainera”. Musika eskolen hezkuntzan arautegia aldatu zutenetik, Nuñezek Seiasle elkarteak prestatzen duen material didaktikoari garrantzia handia ematen dio: “Lagungarria da eta dagoeneko Andoaingo piano jaialdirik gabe ikasturtea zeharo desberdina litzatekeela esan dezaket. Ikasturtearen erdigunean kokatuta dago, eta ikasleentzat aparteko motibazioa du jendaurrean aritzeak. Pentsa ikasle gazteek jarduera ugari dituztela, eta Andoaingoa pizgarri modura hartzen dute. Izugarri maite dute jaialdia, eta lor dezaket dominaren kolorea erronka handitzat hartzen dute”.

Sei urte dira **Monica Nuñez** jaialdira hurbiltzen hasi zenetik, eta bereziki gogoko du musikari eta irakasleen artean sortzen den giroa, “jaialdiak gorunzko joera dela sumatzen dut. Parte hartzean eta jaialdiaren eskaintzan handitzen ari da”.

## EIBAR

### San Patricio ikastetxea

**Maria Zuloaga** musika irakaslea da San Patricio ikastetxean, eta azken lau urteetan epaimahaikide izan da: “Lehenengo

## Maribi Arruti

### Lourdes Iriondo musika eskola

*“Ikasleak pozarren doaz piano jaialdira, ilusio eta motibazio handikoa baita. Andoaingoa berezia da, erronka handia da ikasleentzat”*

## Monica Nuñez

### Musikabi, Donostia

*“Piano jaialdirik gabe ikasturtea zeharo desberdina litzateke. Ikasleentzat aparteko motibazioa du jendaurrean aritzeak”*

## Maria Zuloaga

### Epaimahaikidea, Eibar

*“Lehenengo aldian liluratuta geratu nintzen ez nuelako espero halako antolakuntza maila izango zuenik. Zoragarria iruditzen zait*



Argazkian ageri diren Lourdes Iriondo musika eskolako kideak eta beste zenbait gehiago piano jaialdian arituko dira. Irudian, Garcia eta Arruti irakasleekin batera.



Donostiako Musikabi musika eskolako kideak iazko edizioa amaitu eta gero, parte hartzaileen zapiarekin, dominekin eta diplomekin.

aldian liluratuta geratu nintzen ez nuelako espero halako antolakuntza maila izango zuenik. Zoragarria iruditzen zait. Perfektua dela iruditzen zait, eta hala ere urtero hobekuntzaren bat egiten dutela ikusten dut. Jaialdiak garrantzia handia du pianoa jotzen dabiltzanentzat. Pianoa

ikasi eta irakasten dugunok badakigu zer den bakardadean aritzea. Gazteek, gainera, pianoa bakar batzuren kontua besterik ez dela uste dute. Andoaingo jaialdira iritsi eta hainbeste piano-jotzaile ikusita, pilo bat animatzen dira. Ilusioz beterik itzultzen dira neska-mutilak, eta horrek

ez dauka preziorik”. Seiasle elkartearen lana eskertzekoa dela iruditzen zaio: “Urtero nola hobetu pentsatzen ari dira, ekintza berriak txertatuz, partiturak aukeratuz, bilerak antolatzen. Ikusten da pianoa biziki maite dutela. Andoaingo jaialdiak denbora luzean iraun dezala!”.



Otsailaren 11n egin zuten Peña Santa Krutz elkarte

## Sagardo kata maridajea

**A**iurrik eta Peña Santa Krutz elkarteak elkar-lanean antolatuta, pasa zen otsailaren 11n kata/maridajea izan zen, sagardoa ardatz hartuta. Ordu eta erdi luze iraun zuen ekitaldiak, **Guillermo Castaños** enologoak zuzenduta. Ekitaldira hurbildu ziren hogeitasei pertsonen ezaugarri ezberdineko lau sagardo eta beste hainbat pintxo dastatzeko aukera izan zuten. Ekitaldian zehar ikusi ahal zen janaria eta edaria elkarren osagarri direla, eta bata eta bestearen arteko "ezkontza" egokiak, ahoan sentsazio berriak sortu eta otordu baten plazerra areagotu dezakeela. Bakailao tortila, antxoak, sardinak eta Idizabalgo gaztaren pintxoak banan bana dastatuz, sagardo ezberdinak mahai-



Elkarteko kideek eta Aiurriko harpidedunek parte hartu zuten maridajea.

ratu zituzten. Bertaratutakoek ikusi eta ikasi zuten zein ezaugarri behar dituen sagardo on batek, kolorea, usaina eta zapo-rea kontuan hartuz. Giro atse-

ginean burututako ikastaroan, nabarmentzekoak izan ziren parte hartzaileen jakin-mina eta Santukruz elkarteko zuzendari-tza taldearen inplikazioa.

Andoanidarrak400.eus webgunean ikus daiteke, osorik

## Ikus-entzunezkoa, sarean

Iazko azaroan, Udalak **"400 txokotatik euskarara"** erakusketa antolatu zuen. Funtsean, 50-60 hamarkadetan Andoainera etorritako pertsonen isla izan nahi zuen. Objektuak eta irudiak ikus zitezkeen, baina baita ikus-entzunezko bat ere. Hainbat testigantza bildu zen, herritar hauexenak: Ines Balbin (Jaen), Hilda Viña (Lugo), Pako Perez (Caceres), Pilar Alvarez (Soria), Daniel Calvo (Palencia), Jesus Lopez (Lugo) eta Juan Moyano (Badajoz).

Aste honetatik aurrera lan hori internet sarean osorik ikus daiteke. Andoainda-



Dokumentala bere osotasunean ikusgai dago internet sarean.

rrak400.eus webgunean sartuta egin daiteke. 40 minututik gorako saioan solaskideek etorreraz, integrazioaz, lanaz eta

euskarari buruzko iritziak eskaini zituzten.

Denek ikusteko moduan dago, internet sarean.

### 250 LAGUN GAZTE LOKALEAN IPINITAKO BELDURRAREN ETXEAN



250 gazte igaro zen Gazte Lokaletik dagoeneko klasiko bilakatu den Ostegun Gizeneko Beldurraren etxera. Jar-duera hori prestatzeko kale hezitzaileekin elkarlanean aritu ziren, eta antolatzaileen arabera prestaketa lanetan 31

gazteren laguntza izan zuten. Horrexegatik, Gazte Lokalekoen balorazioa "oso positiboa da partaidetzaren aldetik, eta baita antolaketan aritu diren gazteek egindako lanagatik ere".

## Martxoak 8 Andoainen



vis iparramerikar aktibistaren silueta osatu du, feminismoa edota berdintasuna hitzekin batera. Ekitaldiak martxoaren 4an abiatuko dira, "Aita-tasuna, maskulinitatea eta etxeko espazioaren dimentsio politikoa" mahai-inguruarekin. Hizlari arituko dira **Angel Toña** Eusko Jaurlaritzako Gizarte Politiketako sailburua, **Izaskun Landaia** Emakundeko zuzendaria, **Haizea Barcenilla** arte kritikaria eta **Pello Ulazia** artista.

### "MARTXOAK 8 EMAKUME" KALEJIRA

Berdtasunaren bidean, Andoaingo gizarte bizitzan alor ezberdinetan nabarmendu diren emakumeak omentzeko kalejira martxoaren 5ean izango da, 12:00etan hasita.

Martxoaren 12ra arte jar-duera gehiago burutuko dira: Erakusketa, bertso saioa, zinema, antzerkia,...

Ohi bezala, Andoaingo Udalak egitarau oparoa aurkeztu du martxoaren 8aren baitan. Aurtengo egitaraua iragartzen duen kartel lehiaketaren irabazlea **Arkaitz Lasarte Audikana** izan da. Angela Da-

## Urteko goizik hotzena



Asteartetik asteazkenerako gauan tenperatura nabarmen jaitsi zen. Urteko goizik hotzena asteazkenekoa izan zen,

Andoainen eta Urnietan zero azpiko tenperaturekin. Goizetik auto gidari askok izotzarekin topo egin zuten.

## Hiperaktibitatea hizpide ostegun honetan Urigainen

Arreta Gabezia Nahasketa eta Hiperaktibitatearen (AGNH) inguruko tailerra eskainiko dute Urigainen, Andoaingo Udaleko gizarte zerbitzuak eta ADAHIGI elkarteak antolatuta. Neska-mutilen %5-7-k du AGNH. Kasu horien au-

rrean nola jokatu ikasteko aukera izango da ostegun honetan Urigainen eskainiko duten tailerrean. Arratsaldeko 18:30etan hasiko da saioa eta sarrera doakoa izango da. Nolanahi ere, leku kopuru mugatua izango da.

## Pobrezia energetikoa

Andoaingo PSE-EEK gobernu taldeari pobrezia energetikoari aurre egiteko plana lantzea eskatu diola argitaratu eta gutxira, gobernu taldeak erantzuna eman die.

Gobernu taldeko ardurak diruen EH Bildu harrituta dago otsailaren 25ean eztabaidatuko den mozio hori al-

derdien artean adosten ari direlako. Gogora ekarri dute Andoaingo Udalak pobrezia energetikoari aurre egiteko laguntza lerroa onartu zuela 2014ko ekainean, ordura arte ez zegoena: "Une honetan 80 unitate familiarrek energia pobrezia aurre egiteko laguntza jasotzen dute".



## Abian Urnieta

### Ezker abertzalea

Abian hausnarketa prozesuaren 2. fasea hastear da Urnietan. Eztabaida fasea denez, ezker abertzaleko oinarri sozial guztia gonbidatu nahi dugu parte hartzera. Lehenengo batzarra otsailaren 27 goizean egingo dugu Lekaion. Martxoa hasieran, berriz, bigarrena egingo dugu, eztabaida ixteko. Abian prozesuaren baitan, otsailaren 20an “Espetxeetara Martxa” antolatu da. Urnietatik El Dueso (Santña, Kantabria) espetxera joango gara. Goizeko 6:30ean aterata eta 17:00ak aldera itzuliko gara. Izen-emate orria Xaunar tabernan dago.

Iragan azaroaren 7an, Ezker Abertzaleko 300 kidek agerraldia egin zuten. Epe luzera begira jarri eta Euskal Estatua helburu, gogoeta prozesu sakon bati ekiteko asmoa adierazi zuten. Gogoe-ta, eztabaida eta entzute ariketa izan nahi duen Abian prozesuaren berri eman zuten, hain zuzen ere.

Ezker Abertzaleko oinarri eta kidego soziala osatzen dugun guztiok herriz herri eta auzoz auzo eztabaidan murgiltzera deitu gintuzten, baita euskal errepre-saliatu politikoak ere, izan espetxetan edo erbestean, estrategiari buruzko euren ekarpena ezinbestekoa baita.

Eztabaidak iraungo duen hilabetetan, ahalik eta parte-hartze handiena lortu nahi dugu. Bi fasetako prozesua izango da. Lehena amaitu dugu. Askotariko formatuak izan ditu: banakako edo taldekako harremanak, iritzi-bilketa eta bilerak.

Gogoetak, iritziak edota ekarpenak eskuetan, erabakiak mugimendu bezala hartuko ditugu. Bigarren fasean izango da, herri batzar zabaletan egingo dugun ariketa kolektiboan. Etorkizuneko Ezker Abertzaleak parte-hartzean eta kidegoaren ahalduztzean oinarritu behar duela jakitun, irizpide horietan oinarrituko dugu Abian eztabaida prozesua bera ere.

### BIGARREN FASEA: EZTABAIDA FASEA

Otsailaren bukaeran hasiko da bigarren fasea, hots, eztabaida fasea.

Horren barnean Urnietan bi batzar egitea aurreikusi dugu. Berriki kaleratu den txostenaren eduki guztiak eztabaidara eramango ditugu lehenengoan, eta bigarrenean, apirila aldera, Euskal Herri osoan egindako eztabaidaren ondorioez hitz egingo dugu.

Euskal herria abian, euskal presoak etxera!

Espetxetara martxa. Lehenengo batzarra egin aurretik, otsailaren 20an, hainbat espetxetara martxak antolatu dira. Urnietarrok, Lasarte-Oriako herritarrekin batera, El Dueso espetxera joango gara. Urrunteak eta sakabanaketak eragindako baldintzak salatzea eta euskal presoek eskubideak aldarrikatzea da martxa horien helburua. Ezartzen zaizkien salbuespenezko neurri eta baldintza horiek dira, hain justu, orain abiatu dugun eztabaidan parte har dezaten eragozten dutenak.

Espetxe aurrean ekitaldi bat izango da.

Parte hartzeko deia. Eztabaida prozesu honek zenbat eta parte-hartze zaba-

## Balorazioa

### Andoaindarrak 400

2015. urtea, urte oso berezia izan da andoaindar guztientzat. Urteurren garrantzitsua ospatzen genuen, 400 urte Andoain herri gisa eratu zenetik, eta horrek behar bezalako ospakizuna merezi zuen.

Urtea hainbat ekimen, ekitaldi eta festaren ospakizunarekin joan zaigu: instituzio ekitaldiak, antzerkia, kontzertuak, arte lanak, argazkiak, erakusketak, mahai-inguruak, publikazioak... denetarik egon da “Andoaindarrak 400” egitasmoaren baitan. Eta ekimen horien guztien artean azpimarratu beharreko osagai bat egon bada, hori herritarren partaidetza izan da.

Partaidetza hainbat modutan gauzatu da, gainera: ekimenen antolake-



tan, esaterako. Azpimarratzekoa da norbanako, talde eta elkarte askok ekimen horietako askoren antolakuntzan izan duten interesa eta egin duten lana. Egin duten esfortzu hori gabe ezin izango litzateke ekimen horietako asko aurrera aterata, eta beraz, oso eskertzekoa da egindako ahalegina.

Era berean, herritarren partaidetza handia ikusi dugu baita ere ikusle edo entzule gisa. Ekimen asko jendez lepo egon dira; ikuskizun eta emanaldiez gozatzeko gertu azaldu dira herritarrek. Azken finean, urteurre-

naren filosofiarekin bat egin eta ospakizunetan parte hartzeko prest agertu dira.

400. urteurrenaren antolaketan eta koordinazioan jende asko eta askok hartu du parte: udal langileetatik hasita, “Andoaindarrak 400” egitasmoarekin bat egin duen norbanakora arte. Guzti guztiei, gure eskertza zintzoena helarazi nahi diegu. Euren lan desinteresatuaren eta elkarlanaren bitartez, herria egin baitute. Eta are garrantzitsuago dena: herri bizitzari dago-kionez, etorkizun oparago baterako zimenduak eraiki dituzte.

Ospakizun hauek izan daitezela, beraz, etorkizunean ere elkarlanerako grina bizirik mantentzeko mugarrria; izan dadila eredu, etorkizuneko erronkei aurre egiteko unean, erakutsi dugun batasuna eta harrotasuna.

lagoa izan, orduan eta emankorragoa izango da, orduan eta aberatsagoa. Erronka handia dugu eskuartean. Hori dela eta, urtetan Ezker Abertzaleko kide izan direnen, aurrerantzean izan daitezkeen edota proposatzen dugun proiektu politikoarekin bat egiten dutenen iritzia jakin eta bildu nahi dugu. Guztiena. Eztabaidarako txostena banatzen ari gara dagoeneko. Jaso nahi, baina oraindik eskuratu ez duzenek, batzarretan gauden edonori eska diezagukezue. ezkerabertzalea.info helbidearen bitartez ere eskura dezakezue.

## 2015eko balantzea

### Stop Kaleratzeak Andoain

Plataformak andoaindarrei 2015. urtean zehar, banketxeen gehiegikerien aurka eta etxebizitza eskubidearen alde aurrera eramán dituen ekintzen berri eman nahi die.

Kaleratzeei dagokionez, Euskadi mailan kaleratzeek goruntz egin duten arren, Gipuzkoan joera aurkakoa izan da eta 2015. urtean hipoteken exekuzioak beheruntz egin dute, batez ere bi faktore hauei esker:

- Plataformaren etengabeko presioa gure hipotekak betetzen dituzten klausulen salaketan, hala kalean nola epaitegietan, non gero eta gehiago arrazoiak ematen diguten. Honen ondorioz banketxeek arre-ta handiagoa jartzen dute exekuzio hipotekario bat hasi aurretik.
- Inplikazio politiko handiagoo udal batzorde eta alkateen partetik, baita Batzar Nagusietan eta Eusko Legebiltzarrean.

Bigarren puntuari dagokionez honako 2 lorpenetan gauzatu da:

- Etxebizitzaren Euskal Legearen onarpena, 30 urte ondoren, non andoaingo plataformak bere ekarpena izan duen; Marce Garcia gure adiskideak Eusko Legebiltzarrean egindako agerpenarekin, testuak kalera-

tzeen eta etxebizitza hutsen aurka modu egokian egiteko jaso behar zituen lerro gorriak azaltzeko, baita etxebizitza desbabestuen eta Aloka-bideren inguruan ere. Gure ekarpenen gehiengoak azken idatzian jasotako izan ziren, nahiz eta PPko Gobernuak puntu garrantzitsuenak deuseztatu nahi zituen, etxebizitza hutsaren kanona bezala.

- Udalerrriak Kaleratzerik Gabeko Ere-mu Aitortzeko Mozioak. Gure herrian onartua izan da eta 2016. urtean praktikan jartzeko lan egingo dugu. Horretaz gain beste mozio batzuk ere onartu dira adibidez kaleratze, pobrezia eta berdintasun ezaren aurkako neurrien dekalogo baten garapena, plataforma honek bere ezarpena eta garapena erakunde guztietan defendatzen duena. Kaleratzeak saihesteko bankuekin egiten dugun negoziaketa lanari dagokionez, akordio garrantzitsuak lortu ditugu Banco Popular bezalako entitateekin, non 2014an etxea ordainsarian eman eta alokairu soziala lortzeaz gain, karentzia aldi bat eta lurzoru klausularen deuseztapena eskuratzeko akordioa lortu zen, kuota ordaintzen jarraitzea ahalbidetzen duena.
- Beste akordio garrantzitsu bat izan da Caja Rural de Navarrak familia bati bati bere IRPha Euribor+1 indizeagatik ordezkatzeko eskaini izana da, hilerio 150 euro inguru gutxiago ordainduz eta lurzoru klausula ere ezabatuz.
- Lehen Banesto zenarekin (egungo Santander) etxea ordainsarian ematea lortu dugu.
- Andoaingo familia baten kaleratzea ere saihestu da, geuregana etorri zenean dena Santander bankuari esleitu zagoen eta epaitegietara joz, kaleratzea baino aste bete lehenago kaleratzearen luzamendua lortu genuen, familia honek gutxienez 2017. urterarte etxebizitza bat izaten jarrai dezan ahalbidetuz.
- Banketxeen gehiegikerien aurkako gure lanean, nabarmendu behar dugu lehengo urtean “Etxebizitzaren astea”

sortu genuela, tailer ezberdinekin; hipotekei buruzkoak, lurzoru klausulei buruzkoak (Maite Ortiz eta Jose Mari Erauskin gure abokatu kolaboratzaileen hitzaldi bikainekin) eta sare sozialetan salaketa guneak irekiz.

Azken honen ildora nabarmendu behar da Youtube sare sozialean sortutako kanala “La Estafa continúa” izenekoa, non azalpen bideoak jartzen ditugun lurzoru klausulei buruz, IRPhari buruz, Euskadin etxebizitza babestuari buruzko gure hitzaldiak, Aloka-bideri buruzko salaketak eta batez ere Caja Rural de Navarrak eskaintzen dituen lurzoru klausulen akordio trampak, guk hasitako salaketak geroago kontsumitzaile elkarteek salatu dituztenak.

Azpimarratzekoa da Caja Rural de Navarrari buruzko bideoak 1300 bisita baino gehiago jaso ditu eta espero dugu horrekin ehunka familiek akordio trampa horiek ez sinatu izana. Informazio deiak jaso ditugu honi buruz beste erkidegoetako jendearen eskutik bideoa ikusi ondoren.

2016. urtean bideoak jartzen jarraituko dugu gehiegizko klausulen kanalean, edozein momentuan era erosoan ikuskatzeko salaketa bidea baita.

Balantze honetan badira iruzkin negatiboak ere, hausnarketara eta indarrak batzera eramán behar digutenak banketxeen iruzurren aurrean.

- Lehenengo da hipotekek kaltetutako pertsonen plataforma bat garel eta honek kaltetuen implikazioa eskatzen du, ez euren arazoetan bakarrik, baizik eta beste batzuei laguntzen eta zentzu horretan inplikazio handiagoa eskertuko genuke kaltetuen partetik. Esan behar dugu askotan horiei axola zaien bakarra kuota ordaintzeko gai izango diren edo ez izan dela, eta erabateko ez jakitea dagoela gure bizitzako kontratu garrantzitsuenaren aurrean, horrek familientzat dakartzan ondorio ekonomiko kaltegarriekin.
- Zentzu honetan argitu behar dugu ez garel dohako aholkularitza juridiko bat, baizik eta kaltetu eta bolondresen plataforma bat, euren hipoteke-

kin arazoak dituzten pertsonen harre-ra eman eta laguntzeko lan egiten dugunak.

- Egiaztatu dugu kaltetuen gehiengoak ez direla plataformara hurbiltzen, lotsagatik, banketxearekin egin beharreko negoziazioan oso baliotsua den denbora galduz eta arazoa konpontzeko bideak murriztuz, hamar egunekoa epea bakarrik baitago gehiegizko klausulak legalki argudiatzeko behin kaleratzearen eskaria jasotzen denean, beraz oso garrantzitsua da eskaria jaso bezain laster guregana hurbiltzea.
- Azkenik nahiz eta hipotekak kaltetutako pertsonetaz eta bolondresez osatutako plataforma izan, partikularren arteko alokairuetan ematen diren kaleratzeei buruz esan behar dugu ez dagoela banketxe baten abusurik, baina hala ere familia horiekin elkartasuna adierazi nahi dugu eta horretaz gain arazo horri irtenbidea emateko udal esparruan dugun lan ildoak dela alokairu sozial-publiko legalki sustatzea eta espekulazio inmobiliarioa saihesteko politikak bultzatzea.

Espero dugu 2016. urtean nabarmenki gure helburuetara hurbilduko duguten pauso erabakigarriak ematea, posible delako nahi ez duten arren.

## Ardura eskatzen dugu

### Ipar Haizea plataforma

Auzokide agurgarriak, zuei zuzentzen gatzazkizue sortu berri den Andoaingo Ipar Haizea plataformatik.

Azken bolada honetan Zubietako zaborren errauskailuaren proiektua martxan jarriko duten mehatxua azaleratu da berriz ere. Jakin badakigu errauskailuaren ondorio kaltegarriak (ingurumenean, osasunean...) 5 km-ko perimetroan pairatuko direla bortizki; aipatutako azpiegitura Andoaindik 3 kilometrotara geldituko litzateke, 5 kilometroko perimetroaren barruan, alegia.

Esan bezala, mehatxu larri baten aurrean gaude: Carlos III Osasunaren Institutuak kaleratutako txostenek, adibidez, errauskailuak bezalako azpiegiturek beraiengandik 20 kilometrorara dauden herrietako biztanleengan ere osasunean kalteak eragiten dituztela baieztatzen dute. Beraz, pisuzko ondorio hauek kezkatzen gaituztelako bildu gara, ondorio horiek denok nozituko ditugu eta.

Gure nahia proiektu honen bultzatzaileei erantzukizuna eskatzea da; irtenbideak bila ditzatela eta eztabaidarako eta negoziaketetarako tokia egon dadila. Honengatik guztiagatik, Andoainen burutuko diren hurrengo ekimenen berri eman nahi dizuegu:

- Erantzukizunaren aldeko giza katea. Otsailaren 20an, 12:00etan Arrate plazan.
- Errauskailuaren aurkako martxa Zubietara. Otsailaren 28an goizeko 08:00etan merkatu plazatik irtengo da Andoaingo zutabea.
- Osasunaren aldeko martxa. Martxoaren 12an, 17:00etan Etxeberrieta plaza-tatik.





## KIROL ALBISTEAK

# Mendi lasterketaren ibilbide berria arakatzeko irteera

Maiatzaren 1ean mendi lasterketaren edizio berria antolatuko dute Urnietan, oraingoan berrikuntza nabarmenekin. San Juan plazan abiatu eta amaituko baita lasterketa, eta horrez gain parte hartzaileek aukeran 15 eta 26 kilometroko ibilbide bana izango dute. Aurreko igandean ibilbide berria ezagutzeko irteera gidatua antolatu zuten, eta hitzordura 50 partaide inguru hurbildu zen. Primerako eguraldiarekin, Adarra aldera jo zuten talde ezberdinetan banatuta. Zer esanik ez igandean egindako proba saioak garrantzia izango duela ondorengo asteetako prestakuntzan.



Desnibel handia pilotuko dute lasterkariek, igoera eta jaitsiera malkartsuekin.

Andoaindarrez eta urnietarrez gain, beste herrietako korrikalariak ere hurbildu ziren San Juan plazara.

Ondoren, dutxa beroa hartuta, irteeran parte hartu zutenei hamaiketako eskaini zieten Santa Kruz elkartearen.

# Eskualdeko igerilariak

Aurreko larunbatean, Buruntzaldea IKT taldeko benjamin eta alebin mailako igerilariak "50 Metroko Saria" proban aritu ziren lehian, jendez gainezka egon zen Lasarte-Oriako igerilekuan. Saio horietatik A eta B finaletan arituko diren igerilariak erabakiko dira, otsailaren 28an Azpeitiko igerilekuan antolatuko dituztenak. Hitzordua horri begira, igerilariak gogotsu aritu ziren. Klubetik adierazi dutenez, klubeko txikienak bikain aritu ziren.



Eskualdeko igerilariak "50 Metroko Saria"n, aurreko larunbatean.

# Urnietak Leizaran garaitu zuen, eskualdeko derbian

## URNIETA 29-27 LEIZARAN

Eskubaloian, gizonezkoen arteko senior mailako partidaren kronika bidali dute Urnieta KE elkarteok: "Gorritxoek ez zuten hasiera ona izan, aurreko jardunaldietan emaitza onak emandako 3-2-1 defentsa andoaindarren eraso-jokoa oztopenatzeko ez baitzen baliagarria izaten ari. 6-0 joko sistemara aldatu eta atsedenaldira parekatsu iristea lortu zuten (12-13).

Bigarren zatia hasieran Jokin Jimenez eta Patxi Morandei-



Beñat Semperena.

raren mutilek markagailuan aurrea hartzea lortu zuten, batez ere John Sanchezen inspirazioari esker. Partida amaitzeko zazpi minutu falta zirela, gorritxoek 5 goleko aldea zuten. Erasoan huts egiten hasi zirenean Leizaranen presioa iritsi zen. Hala ere, garaipenari eutsi zioten".

Urnietako goleatzaileak: John Sánchez (8), Beñat Semperena (5), Eneko Urruzola (5), Iñaki Ibañez (3), Josu Arruarte (3), Gorka Vicente (3), Eneko Salaberria (2).

## Areto futbol txapelketa

### A taldea, emaitzak:

Ekhia 1-3 Keler  
Centro Extremeño 2-5 Aure Maiton  
Dad Kutxa 3-3 Ozu

### B taldea, emaitzak:

Academia 8-4 Pausoka  
Hogar Extremeño 3-0 Egur  
Ekaitz 11-0 Drink Team

### Sailkapena:

1. Aure Maiton 6  
2. Keler 6

### Sailkapena:

1. Hogar Etxemeño 9  
2. Akademia 9

## Urnietako pilota albisteak

### Trinketea. Gipuzkoako txapelketa:

Julen Loitegi-Eñaut Esnaola.  
Zuzenean finalera sailkatu dira.

### 4 1/2. Zizurko txapelketa:

Imanol Odriozola.  
Finalaurrekora sailkatu da.

## Futbola, asteburuko partidak

### ERREGIONAL OHOREZKOA

#### 22. jardunaldia:

#### Euskalduna 0-3 Anaitasuna

#### Sailkapena:

1. Tolosa	48 puntu
2. Anaitasuna	45 puntu
3. Mutriku	40 puntu
12. Euskalduna	28 puntu

#### 23. jardunaldia. Larunbata, 20:

Ostadar-Euskalduna.

### PREFERENTE MUTILAK

#### 19. jardunaldia:

#### EAS08 4-2 Urnieta

#### Sailkapena:

1. Añorga	45 puntu
2. Sanpedrotarra	45 puntu
3. Trintxerpe	41 puntu
5. Urnieta	36 puntu

#### 20. jardunaldia, otsailak 20:

Urnieta-Lengokoak. 18:00.

## Ganbara saski taldea

### Asteburuko emaitzak:

Andraitz A 55-51 Ganbara SenM  
Ganbara JubM 51-47 LEK B  
Ganbara InfM 15-56 Orioko

### Datorren jardunaldia:

Ganbara SenM-Añorga  
19:15. Allurralde.  
Otsailak 20, larunbata.

## Eskola Kirola hitzarmena

Urnietako Udalak eta herriko ikastetxeek "Eskola Kirola" hitzarmena izenpetu dute aste honetan. Haur eta gazte mailan kirola egitea bermatzeko akordioa da. Horretarako, Urnietako Udalak laguntzak eman eta baliabideak jartzen ditu.



**Gipuzkoako  
Foru Aldundia**  
Euskara Zuzendaritza



**Oharra:** Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

**Aiurri**  
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Manuel Larramendi  
Kultur Buzkaria

INISTORRA

TOKIKOM

Ekoizlea:

ERROITZ  
BALTZU MUGATUA

Laguntzaileak:

Eusko Jaurlaritz

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aldizkari honek  
bi udalerrri hauen  
dirulaguntza jasotzen du:

ANDOAINGO UDALA

URNIETAKO UDALA

Argitaratzailea:

ERROITZ  
BALTZU MUGATUA

**Aiurri eskuragarri:**

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro.  
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

**Egoitza Orokorra:**

Arantzibia plaza, 4/5-behea.  
20140, Andoain  
Tel.: 943 300 732  
Faxa: 943 300 731  
@: andoain@aiurri.com  
**Webgunea:** www.aiurri.com

**Zuzendaria:**

Jon Ander Ubeda.  
andoain@aiurri.com  
**Erredaktoreak:**  
Xabier Lasa, Joxeba  
Lizeaga, Izarne Olano  
eta Jon Unanue.

**Diseinua:**

Maddi Trutxuelo eta  
Jon Ander Ubeda.  
diseinua@aiurri.com  
**Publizitatea:**  
Fernanda Irazu.  
publizitatea@aiurri.com

**Zorion agurrak, merkatu**

**txikia:**  
diseinua@aiurri.com.  
www.aiurri.com.  
**Lege Gordailua:** SS-1078/04.  
**ISSN:** 1698-4870.  
**Tirada:** 4.000 ale.

**Kudeatzailea,**

**banaketa**  
**arduraduna:**  
Garbiñe  
Ugarte Mendia.  
idazkaritza@aiurri.com  
Tel.: 943 300 732

**Banatzaleak:**

Mikel Arregi  
(Andoain), Garazi  
Usandizaga (Urnietan).  
**Inprimategia:**  
Zeroa Multimedia.  
Huarte-Iruñea.

# Agenda

OTSAILAREN 18TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: [andoain@aiurri.com](mailto:andoain@aiurri.com)

## Zinema

**Andoain, Bastero**

- Asteburu honetan ez da film emanaldirik izango.
- Dokumentala:  
“The good son”, jatorrizko bertsioan euskarazko azpitituluekin.  
Astearte, 23. 19:00.
- Datorren asteburuan:  
“El renacido”, Leonardo Di Caprio aktorearekin.  
Larunbata, 27. 19:30, 22:00.  
Igandea, 28. 19:30.  
Astelehena, 28. 19:30, 22:00.
- Haurrentzat:  
“Alvin y las ardillas 4”.  
Otsailak 27 eta 28. 17:00.

**Urnietan, Sarobe**

- Haurrentzat: “Del reves”.  
Igandea, 21. 16:00.

## Erakusketak

**Andoain, Bastero**

- Jose Angel Yanci Urtasunen marrazkiak.  
Otsailaren 27ra arte.
- Pello Ulazia, “Isilean”.  
Martxoaren 4tik aurrera.

## Farmaziak

**Eskualdea**

- Andoain: Diaz.  
Urnietan: Aguado  
(Astigarraga).  
Otsailak 20 eta 21.
- Gauez: Urrutia (Hernani).  
Otsailak 6 eta 7.

## Musika

**Andoain, Bastero**

- **Piano jaialdia:**  
**Teklak dantzan** kontzertu diaktikoa.  
19:00. Bastero.  
Otsailak 19, ostirala.  
**XI. edizioa**, ehunka piano-jolaren partaidetzarekin.  
Otsailak 20 eta 21.
- **Ken 7** taldearen kontzertua.  
Oharra: Sarrerak agortuta.  
21:30. 15 euro. Bastero.  
Otsailak 26, ostirala.
- **Los Chikos del Maiz** talde ezagunaren emanaldia iragarri dute.  
22:30. Gaztetxea.  
Apirilak 23, larunbata.

## Kabareta

**Andoain**

- “Cabaré Chihuahua” musikal kritikoa da, ironikoa, euskomexikarra eta zonbi xamarra.  
21:30. Bastero.  
Martxoak 4, ostirala.

## Literatura

**Andoain**

- Literatur solasaldia Itsaso Martinen “Ni, Vera” liburua ardatz hartuta.  
Izena emateko:  
943 300 615.  
liburutegia@andoain.eus  
19:00-20:30. Liburutegia.  
Otsailak 23, astearte.

## Giza katea

**Andoain**

- “Guztioi eragingo digun erraustegiagatik ardura eskatzeko”, giza katea antolatu du Ipar Haizea plataformak.  
12:00. Arrate plaza.  
Otsailak 20, larunbata.

## Martxa

**Eskualdea**

- Ezker abertzaleak espetxetara martxa antolatu du.  
06:30. Urnietan-El Dueso  
Izen-ematea: Xauxar.  
07:00. Andoain-Teruel  
Izen-ematea:  
Xaxi, Irunberri.  
Otsailak 20, larunbata.

## Bertsoak

**Andoain**

- Sahararen aldeko saioa: Beñat Gaztelumendi, Oihana Iguaran, Maialen Lujanbio, Alaia Martin, Aitor Mendi-luze eta Unai Muñoz.  
12:00. Bastero.  
Otsailak 28, igandea.

## Ikuskizuna

**Urnietan, Sarobe**

- “Super H hontz zuriaren lurraldean”, liburuaren aurkezpen musikatua: Miren Amuriza, Aukeran...  
17:30. Otsailak 28, igandea.


## ZORION AGURRAK

**ZORIONAK**




**Aiur** Usarralde  
Elizondok otsailaren 16an 9  
kandela itzaliko ditu. Muxuak.  
Andoaingo aitona-amonak.  
**ANDOAIN**  
**HERNANI**

**ZORIONAK**



Peio sei urte  
beteko dituzu!  
Zorionak eta  
ondo pasa eguna,  
amona eta  
aitonaren partetik.  
**ANDOAIN**

**ZORIONAK**



Urtarrilaren 21 ean jaio ziren **Nerea**  
eta **Lara**. Zorionak amaxori, aita-  
txori eta familia guztiari. Muxuak.  
**ANDOAIN**

**ZORIONAK**



Zorionak **Ekiñe** maitia 3 urtetxo  
bete dituzu, ze neska handia!  
Hemendik aurrera asko zaindu  
beharko duzu zure anaitxo. Ongi  
etorri **Haitz!** Ikaragarri maite zai-  
tuztegu! Amatxo eta aitatxo.  
**ANDOAIN**

**ZORION AGURRAK.** Erraza da, eta  
dohainik: [diseinua@aiurri.eus](mailto:diseinua@aiurri.eus).

**MERKATU TXIKIA.** Andoainen per-  
sona bat behar dugu, astean zehar  
emakume bat orduka zaintzeko. Inte-  
resatuak zenbaki honara deitu: 628  
947 241 edo 605 736 632.

“ SuperH hontz zuriaren lurraldean ”  
Miren Amuriza  
Aukeran Dantza Konpainia  
Alos Quartet

Otsailak 28 / Saroben / 17:30ean / Sarrerak: 3€

Logoak: SuperH, miren amuriza, aukeran, ALOSQUARTET, SAR BE

**Aiurriko harpidedun izatearen abantailak:**

# TXOTX!

**Harpidedun egin  
zaitez eta etxean  
jasoko duzu:**  
943 300 732  
[idazkaritza@aiurri.eus](mailto:idazkaritza@aiurri.eus)

**Sarasola**  
943 690 283  
ASTEASU

**Gaztañaga**  
943 591 968  
ANDOAIN

**Aburuza**  
943 692 452  
ADUNA

**Altuna**  
943 554 917  
URNIETA

**Oianume**  
943 556 683  
URNIETA

**Larre-gain**  
943 555 846  
EREÑOZU-HERNANI

**R. Zabala**  
943 690 774  
ADUNA

